



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko martxoaren 27a

32 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikokoak suntsitzeko arauak ematen dituen. Ohiko prozeduraz tramitatzea (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Hondakin arriskutsuen kudeaketan moratoria bat ezartzekoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Helduen hezkuntza arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (10. or.).
- Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Tramitazioa bukatutzat emana (10. or.).

**E SAILA:****Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Nafarroako Gobernua Kalitateari buruzko Legearen alde egoteari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeei antisortze-metodoen erabileraren arloko heziketa eta osasun-laguntza berma diezaion, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Idaho (EEBB) Estatuko ordezkariak gure Komunitatea bisitatzera gonbidatzen ditu, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan oinarritzeko osasun laguntza berrikusi eta gaurkotzera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordenagailuak erosteko dirulaguntzetarako deialdia onets dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du Unibertsitatei buruzko Legea haren borondatearen aurka inposatu izana, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, nazioko gobernua premiatzen da Senatuaren birmoldaketari bultzada eman diezaion, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (18. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, lehenasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidearen erabilerari buruzkoa, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (20. or.).
- Galdera, N-121-A errepidean gertaturiko istripu-kopuruari buruzkoa, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Bardea eta Urbasako parke naturalen garapenerako asmoei buruzkoa, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (21. or.).
- Galdera, farmazia-gastuaren aurreikuspenari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (22. or.).
- Galdera, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legeak foru administrazioaren eraikinetan duen betetze-mailari buruzkoa, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (22. or.).
- Galdera, energia berriztagarrietarako prestakuntzarako Zentro Nazionalaren obren egoerari buruzkoa, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (23. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetako programak” kontusailaren betetzeari buruzkoa, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Ezkaba mendian eginiko inbertsioei buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (24. or.).
- Galdera, Fustiñanako Hidronor zentroan hondakinak tratatzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (26. or.).
- Galdera, Zolinako hiri bioklimatiko deritzonari buruzko administrazio-erabakiei buruzkoa, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egina (26. or.).

**I SAILA:****Parlamentuko Jarduera:**

- 2002ko urtarrilean egindako bilerak (27. or.).
- 2002ko urtarrilean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (27. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikoak sunsitzeko arauak ematen dituen**

### *OHIKO PROZEDURAZ TRAMITATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2002ko martxoaren 14an egindako bileran, Nafarroako arriskuko material espezifikoak sunsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektua zuzenean eta irakurketa bakarrean tramitatzea baztertu zuen. Foru lege proiektu hori 2001eko abenduaren 26ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125 eta 128. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Nafarroako arriskuko material espezifikoak sunsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

**2.** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingu-rugiro Batzordearen esku uztea. Batzorde honetako Mahaiak aurkezturiko zuzenketak ordenatuko ditu.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortze-koa**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko apirilaren 12ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege propo-

samena 2002ko martxoaren 18ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Hondakin arriskutsuen kudeaketan moratoria bat ezartzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Hondakin arriskutsuen kudeaketan moratoria bat ezartzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Hondakin arriskutsuen kudeaketan moratoria bat ezartzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Aipatu foru lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Foru Lege proposamena, Hondakin arriskutsuen kudeaketan moratoria bat ezartzekoa**

#### ZIOEN AZALPENA

Une hauetan, hondakin berezien –gehienetan arriskutsuak eta toxikoak– kudeaketaren inguruko hainbat proiektu pribatu sortzen ari dira Nafarroan. Gertatzen ari dena ez da ustekabekoa. Indardun arauetan proiektu pribatuetarako ezarritako moratoriaren amaieraren ondorio da. Moratoriaren helburua zen epe horretan sortzea eta abiaraztea

enpresa publiko bat, Nafarroak arlo horretan dituen beharrak zuzenean kudeatzeko. Legegilearen irizpidea izan zen hondakin arriskutsu eta toxikoen kudeaketan erantzukizun publikoaren printzipioa ekimen pribatuaren gainetik zegoela. Asmo horren oinarrian zegoen arrazoia, berriz, hondakin berezien kudeaketa modu zehatz eta eraginkorragoan zehaztea ingurumenaren ikuspuntutik.

Mota honetako hondakinen kopurua eta berekin dakarten arriskua pixkanaka murrizten joatea, berriz erabiltzea eta birziklatzea, osasun eta ingurumenaren aldetik deuseztatzeko modu egokiena bilatzea, garraioan eta lekuz aldatzean gorde beharreko segurtasuna, eta kontrolik gabeko biltegien prebentzioa, adibidez, erantzukizun publikoaren printzipioaren arabera gobernatu beharreko alderdiak dira. Beraz, ez dago hor erabiltzerik ekimen pribatuaren aldeko subsidiarotasunaren printzipioa.

Lehendabiziko bultzada politikoa Nafarroako Gobernuak eta Ezker Batuak 1996ko aurrekontuetarako 1995eko abenduan izenpetu zuten akordioak eman zion. Akordio haren bitartez xedapen gehigarri bat erantsi zitzaion aurrekontuari buruzko legeari, hondakin berezien kudeaketarako sozietate publiko baten sorrera ezartzen zuena.

Sozietate hori eratu egin zen baina gobernu aldaketaren ondorioz hondakinen kudeaketak ere aldaketa nabarmena izan zuen, ekimen pribatua sustatzeko bidea hartuta lehendabiziko pausua sozietate publiko hori hutsal bihurtzea izan baitzen. Gure ustez, UPNren gobernuaren jarrera horrek urratu egiten du legegileek hondakin berezien kudeaketari buruzko 1994ko legean islatu zuten borondatea. Hori dela eta, lege proposamen honek arau haren ahalmena berreskuratu nahi du.

**Artikulu bakarra.** “Nafarroako Gobernuak kapitalaren gehiengoa publiko duen sozietate baten bitartez kudeatuko ditu hondakin bereziak. Horretarako, behar diren ekintzak gauzatuko ditu eta haien berri emanen dio Parlamentuari bi hilabeteko gehieneko epean.

Enpresa publikoak sustaturiko tratamendu zentro bat edo gehiago lurralde eta ingurumen aldetik ezarriarik ez dauden bitartean ez da baime-nik ematerik izanen hondakin bereziak tratatu edo biltzeko inolako instalaziori edo antzekori.”

### **Azken xedapena**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-an argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.-** Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.-** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Konstituzioak, 43. artikuluan, osasun babesaren eskubidea aitortzen du, eta orobat ezartzen du botere publikoei dagokiela, aurrea hartzeko neurrien eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez, osasun publikoa antolatu eta zaintzea.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 53. artikulua ezartzen du “barne osasuna eta higiene alorretan, gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak dagozkiola Nafarroari eta, gainera, Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea.”

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5.14 artikulua ezartzen duenez, Foru Komunitateko osasun administrazioak prestazio osagarriak ezarri ahalko ditu, aldeztu aurretik aurrekontu zuzkidura berekia eta programazio berariazkoa eginez egiazki abiatuko direnak.

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak, 1998ko martxoaren 5eko ebazpen bat zela medio, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen zuen Foru Dekretua onetsi zuen.

Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena Levonogestrel printzipio aktiboa duten sendagaiak finantza zitzan, baina Gobernuak hura betetzeari uko egin dio. Bada, osasun sistema nazionalako farmazia laguntza jasotzeko eskubidea duten Foru Komunitateko herritarrek –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak luzaturiko Banakako Osasun Txar-

tela dutenek– aipatu printzipio aktiboa duten farmazia espezialitate horiek Nafarroako Foru Komunitatearen baliabide berekien kargura jasotzen dutela bermatzeko, ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagaien prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena.

**Artikulu bakarra.** Horretarako, irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretuaren Eranskinean, Levongestrel printzipio aktiboa duten farmazia espezialitate guztiak sartuko dira.

#### **Xedapen gehigarriak**

**Lehena.** Nafarroako Gobernuak abian jarriko du informazio kanpaina bat "biharamuneko pilula"

delakoak gaixoengan izan ditzakeen nahi gabeko ondorioei buruz eta sexu heziketako berariazko programa bat ezarriko du, nahi gabeko egoerak ekiditeko.

**Bigarrena.** Nafarroako Gobernuak bermatuko du herritarrek sendagai hori eskuratzeko duten eskubidea, sendagai horiek agindu eta emateko lanetan aritzen diren osasun arloko profesionalen artean beren burua kontzientzia eragozletzat hartzen duenik dagoenean.

#### **Azken xedapena**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Aipatu foru lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proposamena, Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 24ko 13/1994 Foru Legeak 6. artikuluan ezarri zuen Nafarroako Gobernuak hondakin berezien plan kudeatzaile bat egiten duela. Plan hori, Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen Departamentuak landu ondoren, jendaurrean jarriko da eta Nafarroako Ingurumenaren Kontseiluari igorriko zaio hari buruzko txostena egin dezan. Behin alegazioen tramitea bukatu ondoren, Nafarroako Gobernuak onetsi eta Parlamentura igorriko du, behin betiko onespena eman dakion.

Nafarroako Gobernuak 1998an egin zuen plan kudeatzailea eta Parlamentuari igorri zion.

6. artikulua dio, halaber, plan kudeatzailea aldira errebisatuko dela.

Hondakin berezien plan kudeatzailean ezarrita dago hasiera batean plana denbora mugarik gabe egonen dela indarrean. Halaber, ezartzen du planaren konpromiso maila 2002an aztertuko dela; horrek kontraesan bat irudi lezake, uste izatekoa baita epe luzeago bat ezarri gero ez litzatekeela

horren sinesgarria izanen, aurrerapen teknologikoen ondorioak balioesteko zailtasunengatik, lege eta arauetan etengabe gertatzen diren aldaketengatik eta industria sektorearen beraren jokaerarengatik.

Bestalde, 2000. urtearen inguruan lehenbiziko errebisio bat eginen zela ezarri zuen planak.

2002ko muga horretara iritsiak gara honezkerro, eta lehenbiziko errebisioa ere egin gabe dago. Hondakin berezien kudeaketari buruzko planak hiru urteko moratoria bat ezarri zuen ekimen pribatuko hondakinak tratatzeko azpiegiturak ezartzeko eta hondakin bereziak kudeatzeko lizentziak emateko. Moratoria hori 2001eko martxoan bukatu zen, hasierako errebisioa egin gabe. Une horretatik aurrera, horrelako zentroak ezartzeko ekimen bat baino gehiago sortu da, eta aurkotasun sozial eta politiko nabarmenak eragin dituzte.

Hondakin berezien plan kudeatzailearen finantzaketari buruzko kapituluan aurreikusitako inbertsio eta gastuei buruzko laburpen-taula bat ageri da, eta hartan adierazten da hondakinak sortzen diren lekuan ahal den guztian murrizteko eta tratatzeko inbertsio pribatuetarako dirulaguntza publikoak eman hala izanen direla, eta inbertsio publikoetarako Hondakin bereziei buruzko plan nazionalan (1995-2000) aurreikusitako laguntzak erabiliko direla, hain zuzen ere Herrilan, Garraio eta Ingurumen Ministerioak eta Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen Departamentuak 1995eko maiatzaren 10ean plan horretatik ondorioztatzen diren jarduketak laguntzeko sinaturiko hitzarmen baldintzetan. Laburpen-taulak tratamendu-azpiegiturarako 259 milioi pezetako inbertsio publikoak baizik ez ditu biltzen. Aurreikusitako inbertsio pribatua hondakinak sortzen diren lekuan murrizteko eta tratatzeko baizik ez da aurreikusten. Horrenbestez, tratamendurako azpiegiturak instalatzea inbertsioaren arloan baizik ezin da gauzatu ekimen publikotik. Planak zehazten du kudeaketa pribatua izan litekeela, baina aldi berean ezartzen du ingurumenaren babesa bermatzeko, indarreko arauen gainetik ere, eta kudeaketa integrala ez egoteko emaitza ekonomikoek baldintzaturik, Nafarroako Gobernuak, aplikatzekoak diren legeetan aurreikusitako modalitateen bitartez, kapital gehiena publikoa izanen duen enpresa bat edukiko duela hondakin berezien kudeaketa publikorako.

Enpresa publiko hori 235/1996 Foru Dekretuaren bitartez eratu zen, "Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A." izenarekin.

Ingurumena kudeatzeko administrazio neurriei buruzko martxoaren 2ko 1/1999 Foru Legeak 3.

artikuluaren ezarri zuen zein izanen ziren Nafarroako Foru Komunitateaz kanpotik heldu diren hondakinak administratzeko mugak, eta c) letran ondokoa dio hitzez hitz: "Nafarroako Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planean aurreikusitako helburuak ezin betetzea ekartzen badute". Kontuan harturik aipatu planaren helburuetako bat norberaren askitasunaren printzipioa dela, hondakinak inportatzeko aukera aurreikusita sustatzen diren instalazio guztiak foru legeetatik kanpokoak dira.

Otsailean, hondakinen zabortegei buruzko Europako zuzentaraua Espainiako legerian egokitzeko errege dekretu bat eman zen. Errege dekretu horrek nahikoa aldatzen ditu hondakinen hondakin berezien zabortegeiak kokatu, eraiki eta ustiatzeko baldintzak.

Azaldutakoa dela eta, gure ustez beharrezkoa Foru Komunitateko hondakin berezien kudeaketari buruzko politika errebisatzea.

Horrenbestez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentu Taldeak Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

#### Foru Lege proposamena

2. artikuluko e) letra aldatzea. Ondoko testua izanen du: "Hondakinen tratamendurako instalazioak soilik ekimen eta kudeaketa publikoaren bitartez sustatu eta garatzea".

6. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea. Ondoko testua izanen du: "Plan kudeatzailearen proiektuak bost urteko indarraldia izanen du, behin Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuak..." (testuaren gainerakoa berdin).

6. artikuluko 5. idatz-zatia aldatzea. Ondoko testua izanen du: "Bi urtez behin berrikusiko da Plan Kudeatzailea, eta hura bukatzerakoan beste plan kudeatzaile bat eginen da, produkzioan, arauetan eta industria produkzioetan gertatzen diren aldaketei egokitua. 1, 2, 3 eta 4. idatz-zatietan aurreikusitako prozedura erabiliko da.

6. artikuluari 7. idatz-zatia gehitzea. Ondoko testua izanen du: "Lurraldearen Antolamendu, Ingurumen eta Etxebizitza Departamentuak urtero Nafarroako Parlamentuari igorriko dio Hondakin berezien plan kudeatzailearen betetzeari buruzko ebaluazio bat"

7. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatiak kentzea.

8. artikuluko lehen lerrokada aldatzea. Hona testua: "Ekoizleek berek hondakin bereziak kudeatzeko baimenak emateko eta Nafarroako Gober-

nuak kudeaketa publikoa egiteko, Nafarroako Gobernuak alderdi hauek izanen ditu kontuan”:

9. artikulua aldatzea. “Kudeatzaile pribatuek” kendu eta “Hondakinen ekoizleek” jartzea.

10. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Hona testua: Hamar urterako emanen da ekoizleek berek hondakin bereziak kudeatzeko baimen administratiboa eta...” (testuaren gainerakoa berdin).

12. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Hona testua: “Nafarroako Gobernuak erabakiko du Navarra de Medio Ambiente Industrial S.A. enpresa izatea, 235/1996 Foru Dekretuaz eratu baitzen, ekoizleek berek tratatzen ez dituzten hondakin berezien kudeaketa publikoa eginen duena. Kudeatzaile izateko, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraituko zaio.”

### **Xedapen iragankorra**

**Lehena.** Hondakin berezien plan kudeatzaile berria onesten ez den bitartean, ezin izanen da ez onetsi ez baimendu hondakin bereziak tratatzeko inongo instalaziorik.

### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamendu-xedapenak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proposamena, Ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa**

### **ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko apirilaren 12ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---



## Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzekoa

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko apirilaren 12ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru

lege proposamena 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proposamena, Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko apirilaren 12ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege propo-

samena 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proposamena, Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko apirilaren 12ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2001eko irailaren 24ko 93. Nafa-

roako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proposamena, Helduen hezkuntza arautzen duena

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Helduen hezkuntza arautzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko apirilaren 19ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2001eko azaroaren 26ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

### TRAMITAZIOA BUKATUTZAT EMANA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2002ko martxoaren 5 eta 6an egindako bileran, Hezkuntza eta Kultura Batzordeak osorik baztertu zuen Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko foru lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa, Erregelamenduan xedatutako epean testua berreskuratzeko boto partikularrik aurkeztu ez delako.

2002ko martxoaren 20an legelari nagusiak emandako txostena kontuan harturik, Nafarroako

Parlamentuko Erregelamenduko 136.5 eta 37.1.7gn. artikuluekin bat, hona ERABAKIA:

1. LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamenaren tramitazioa bukatutzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Nafarroako Gobernua Kalitateari buruzko Legearen alde egoteari buruzkoa**

### **BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak jabeldura bat aurkeztu zuen, Nafarroako Gobernua Kalitateari buruzko Legearen alde egoteari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **JABELDURAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau egiten dio Nafarroako Gobernuari. Espainiar Gobernuak hezkuntza sistemaren berrantolaketa orokor bati ekin dio ikasurte honetan. Humanitateen dekretuaren eta Unibertsitateen Legearen ostean, Kalitatearen Legearen txanda da, nonbait. Egun Nafarroan indarrean dagoen esparru juridiko-politikoaren eraginez (nafarroak bozkatu ez gunden esparrua, hain zuzen ere) neurri horiek guztiek eragin zuzena daukate Nafarroako hezkuntza errealtatean. Hartara, Batasunaren ustez, Madrilgo Gobernua mahai gaineratzen ari den berrantolaketak ez ditu nafarron nahi eta beharrak kontuan hartzen, eta, beraz, inposaketatzat jo behar da.

Alabaina, nafarron nahi eta beharrak entzun, zaindu eta bermatu beharko lituzkeen Nafar Gobernuak Espainiar Gobernuaren egitasmoekin bat egin du behin eta berriro. Lerrokatze honen azkeneko berria prentsaren bidez izan gunden martxoaren 13an. Izan ere, Laguna kontseilariak Kalitatearen Legearekiko adostasuna adierazi baitzuen (hori baik aldaketak egiteko aukera egon dadin eskatu zuen), nahiz eta Nafarroako Parlamentuan orain arte gai horri buruz hitz egin ez den.

Guretzat oso larria da Laguna kontseilariak Nafarroako hezkuntza errealtatean horren eragin nabarmena izango duen Kalitatearen Legearen inguruko adierazpenak, zirriborroa ezagutzera eman eta berehala, komunikabideetan egitea. Laguna jauna nafarron bozeramaile gisa aritzen da (gainera legearekiko bere adostasuna azalduz), baina Nafarroan ez da inolako informaziorik ez eta eztabaidarik eman.

Horregatik, Batasunak jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, honek Kalitatearen Legearen inguruko argibideak eman ditzan, eta azaldu dezan zergatik azaldu den komunikabideetan legearen alde Nafarroako Parlamentuan inolako eztabaidarik eman ez denean.

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeei antisortze-metodoen erabileraren arloko heziketa eta osasun-laguntza berma diezaien**

### *FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeei antisortze-metodoen erabileraren arloko heziketa eta osasun-laguntza berma diezaien".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Batzarre-Aksotariko Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Salvatierra andreak ondoko mozioa Osoko Bilkuran tramitatzea eskatzen du, eztabaidatu eta puntuka bozka dadin: Mozioa, Nafarroako emakumeei antisorkuntzako metodoen erabilerari eta haurdunaldia nahita eteteari buruzko hezkuntza eta osasun laguntza bermatzeko.

Zioen azalpena:

Nafarroan emakumeak duen egoera dela-eta oraindik ere konpontzeko dauden arazoetatik (tratu txarrak, hezkidetzak, lan arloko behin-behinekotasuna, langabezia, etxebizitza eta abar), bat badago bereziki larria dena bizitzaren eremu guztiak ukitzen dituelako: haurdunaldia nahita eteteari buruz ari gara. Izan ere, ezin esan daiteke ekintza mediko soil bat denik hori, osasun arloaz gainera gizarte arloa, arlo afektiboa, arlo ekonomikoa, arlo psikologikoa eta abar ukitzen baititu.

Gure nahiak alde batera utzita, gure bizitzaren ardatza giza harremanek bere zabaltasun osoan osatutakoa da; horren barruan, sexu harremanak daude, eta horiek, batzutan, alde desatseginetara eramán gaitzakete. Hori, noski, ezin da besterik gabe alde batera utzi, besterik gabe ezikusiarrena

eginez: hor daude GIBa, sexu bidez transmitituta-ko gaixotasunak eta nahigabeko haurdunaldi-gelditzeak.

Gure ustez, arazoaren erroa ez da abortuak egitea ala ez egitea, baizik eta sexu hezkuntzari buruzko politikaren planteamendu eta funtzionamendu eskasa.

Egindako azterlan baten arabera, badakigu gaur egun haurdunaldia eteteko 1000 eskari inguru daudela urtero; horietako ehuneko handiena (% 14 inguru) 20 eta 24 urte arteko emakumeenak dira.

Azterlanean gehiago sakondu eta emakumeei laguntzeko zentroetako iturri kreditatuei kontsulta egin ondoren, jakin ahal izan dugu badaudela horretan eragin dezaketen faktore ezberdinak, eta horietan guztietan egin beharko dugu lan egoera zuzentzeko.

#### 1. Informazioari eta Hezkuntzari buruz.

Duela gutxi arte, sexuaren arloan jendeari hezkuntza eta argibideak emateko ardura zutenak hezitzaileak ziren: profil jakin bat eta arloari buruzko prestakuntza berezia eskatzen zitzairen, osasun arlo hutsetik haratago, hain zuzen ere ares-tian aipaturiko gaietan lan egiteko. Orduan ere haurdunaldia eteteko eskariak asko baziren ere, eskura dauzkagun datuen arabera kopuru hori jaistea lortu zen. Gaur egun, hori guztia aldatu egin da, hain zuzen ere egin beharreko lanari ez dagokion profil bat eskatzen baita lan horietan ari-tzeko.

Lehen, itun bat bazegoen Hezkuntza Departamentuarekin, irakasleentzako — lan horretan ezinbestekoak baitira— ikastaroak egiteko. Ikastaro horiek, gainera, aitorpen akademikoa edo merezi-mendu gisakoa zeukaten. Hori guztia desagertu egin da.

#### 2. Laguntza arlokoak

– Emakumeari laguntzeko zentroetan gazteei zuzenduta zeuden programetatik, bat bakarra gelditzen da gaur egun.

– Antisorkuntzako metodo batzuk (preserbati-boa eta DIU) doakoak dira, baina beste batzuk ez dira doakoak (ahoz hartzeko antisorgailuak eta bestelakoak). Horri, gainera, preserbatibo horiek

eskuratzeo zailtasunak gehitu behar zaizkio, bai baitaude farmazialari batzuk, kontzientzia eragozpenean babesturik, halakorik saltzen ez dutenak.

### 3. Osasun arlokoak

– Oraindik ere zail gertatzen da asteburuetan koitoaren ondoko pilula eskuratzea. Halaber, RU-486 pilula ezin da zentro publikoetan eskuratu.

– Hurdunaldia eteteko eskariak oraindik ere Nafarroako osasun saretik kanpo (Zaragoza, Madril, Bilbo...) erantzuten dira, eta ez beti Osasunbideak finantzaturik, nahiz eta legeak baimentzen dituen kasuak izan.

Badakigu jakin arazoaren zati bat ez dela soilik etiko-medikoa, funtsean izaera ideologikoa baita, erlijio pentsamendu kontserbatzaile jakin batek duen indarraren ondorioz. Hala eta guztiz ere, gure ustez ez da onargarria ideologia jakin bat harekin bat egiten ez dugunoi indarrez ezarri nahi izatea, bereziki horrek, eskubideen auzi bat aurrez aurre jartzen digunean: pentsamendu, sinesmen eta kontzientzia askatasuna. Inork ere ezin du bere burua jarri inoren eskubideen defendatzaile, are gutxiago beste pertsona baten eskubideen kaltetan baldin bada.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamenak proposatzen ditut Osoko Bilkurak eztabaiatu eta bozkatzeko.

Erabaki proposamenak:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du emakumeei laguntzeko zentroetako hezitzaileen lanbide-profilak birdefinitzeko, hain zuzen ere hezkuntza behar errealetara egokitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Hezkuntza Departamentuarekin zegoen ituna berrezar dezan, hain zuzen ere irakasleei sexu hezkuntzari buruzko prestakuntza ikastaroak emateko eta ikastaro horien merezimenduak aitortzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du gazteentzako programa emakumeei laguntzeko zentro guztietan berrezartzeko; halakorik ezean, programa zentralizatu bat egiten du, eta irakatsi horiek hedatzeko, eskuratzeko eta jarraitzeko bideak ere ezarriko ditu.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du antisorkuntzako metodo guztiak doakoak izatea bermatzera.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du farmazialari eragozleen zerrenda bat egin eta argitara dezan, inor ere anti-

sorgailurik saltzen ez duten farmazietara ez joateko antisorgailuen bila. Establezimendu horiek ezin izanen dute asteburuko guardiarik egin. Antisorgailurik saltzen ez duten farmaziek asteburuko guardia egin ahal izanen dute soilik auzo berean antisorgailuak saltzen dituen guardiako beste farmazia bat dagoenean.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du berma dezan Nafarroako ospitale publikoek asteburuetan koitoaren ondoko pilulak edukitzea, emakumeentzako laguntza zentroak itxita daudenean. Hartara, pilula eman ahal izatea erraztuko du.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du berma dezan Nafarroako ospitale publikoek RU-486 pilula edukitzea, eskatzen duten ginekologoek erabili ahal izan dezaten.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du berma dezan Nafarroako sare publikoak plantillan kontzientzia eragozleak ez diren ginekologoak eta behar diren gainerako langileak izatea, hurdunaldien etetea egin dezaten. Hartara, behar ez diren arriskuak saihestuko dira, esate baterako in itinere odolustuak, hurdunaldiaren etetea kanpoan egin eta itzulera bidean gerta daitezkeenak, eta, batez ere, Nafarroako emakumeak laguntzarako duen legezko eskubidea betetzeko.

9. Aurreko puntua abian jartzeko, beharrezkoa da sendagileek kontzientzia eragozpenetarako daukaten eskubidea arautzea, ondoko irizpideen arabera:

a) Hurdunaldiaren etetean zuzenean esku hartzen duten langileen kontzientzia eragozpena arautzea, hau da, ginekologoek, erizainen eta anestesisten lana, alde batera utzita ekintza medikoan parte-hartze zuzena ez duten langileak, hurdunaldiaren etetean ez dutelako inplikaziorik. Hori dela eta, beharrezkoa da kontzientzia eragozpenetik kanpo uztea laguntzaileak, zeladoreak, garbiketako langileak eta abar, halako moduan non behar diren langileekin erantzuna ematea bermatuko baita kontsultetan, kirolfanoetan, guardietan eta abar, hain zuzen ere aurreko puntutik ondorioztatzen denean lan egin dezaten.

b) Kontzientzia eragozpen horren parametro ezberdinak ezartzea, benetan ezagutzeko hurdunaldia eteteko estadio ezberdinetan fakultatiboak lan egiteko moduan dauden. Esate baterako, egon daitezke ginekologoak hurdunaldiaren eteteak egin nahi ez baina RU-486 pilula emateko arazorik ez dutenak; beste batzuk egon daitezke hamabigarren astera bitarteko eteteak gauzatzeko

prest daudenak baina hamaseigarren astean hori egiteko eragozpenak dituztenak; edo beste batzuk prest egon daitezke interbentzioaren ondorengo jarraipena egiteko prest daudenak.

c) Pribatutasuna guztiz bermatzea, ez bakarrik gaixoarena baizik eta baita ere esku hartzen duten osasun langile ez-eragozleena, jazarpen psikologiko eta pertsonaleko aitzinako gertaerak saihestuz. Horretarako, beharrezkoa bada, zehapenen sistema bat ezar daiteke, eskubide hori

urratu eta behar ez den informazioa komunikabideei edo inguruko pertsoneri ematen dietenentzat, hain zuzen ere lanbidean jarduteko askatasuna eta intimitatea ez errespetatzeagatik eta era horretako portaerak sustatzeagatik. Azken batean, Osasun Departamentua izanen da arazo horiek ez saihesteak ekar ditzakeen ondorioen erantzule subsidiarioa.

Iruñean, 2002ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Idaho (EEBB) Estatuko ordezkariak gure Komunitatea bisitatzera gonbidatzen ditu**

### *BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Idaho (EEBB) Estatuko ordezkariak gure Komunitatea bisitatzera gonbidatzen ditu".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, indarreko Erregelamenduaren babesean, Estatu Batuetako Idaho Estatuan Euskal Herriari buruz onartutako adierazpenari buruzko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

Arrazoia

Aurtengo martxoaren 6an, Ipar Amerikako Estatu Batuetako Idaho Estatuko Ordezkarien

Ganberak Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen aldeko eta gatazka politikoaren konponbide elkarrizketatuaren aldeko adierazpen bat onartu zuen aho batez. Une honetan Senatuan eztabaidatzen ari da eta, ziurrenik, aste honetan bertan onartuko du bertako Senatuak.

Proposamenak ordezkari demokraten zein errepublikanoen babesa lortu du eta aipatzekoa da Idahoko Estatu Idazkaria den Pete Cenarrusa errepublikanoak honen defentsa zuzena egin duela Ordezkarien Ganberaren aurrean.

Beraz, kontutan izanda historikoki Idaho Estatuan euskal diasporak bete izan duen papera eta politikoki adierazpen honek duen garrantzia, lehenengo aldiz Estatu Batuetako instituzioetatik gatazka politikoaren konponketa demokratikoa eta Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen delako, Nafarroako Parlamentuak ondokoa erabaki du:

"Nafarroako Parlamentuak Idaho Estatuko Ordezkarien Ganberak 2002ko martxoaren 7an onartu duen proposamen legegilearen garrantziaz eta balio politikoaz oharturik, bertako ordezkariak instituzional bat Nafarroara etortzera gonbidatzea erabaki du, gure herriaren egoera zuzenean eza-gutzeko aukera izan dezaten."

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan oinarritzko osasun laguntza berrikusi eta gaurkotzera**

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan oinarritzko osasun laguntza berrikusi eta gaurkotzera".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako biztanleriaren egiturak XX. mendearen azken hamarkadetan izaniko aldaketak garrantzizkoak eta funtsezkoak izan dira. Biztanleriaren piramideak delakoak zenbait mudantza izan ditu. Populazio gaztearen oinarria mehetu egin da eta asko handitu, berriz, 65 urtetik gorako biztanleena, bizi itxaropena handiagoa eta hobea delako, eta eritasun kronikoak dituzten biztanleek ere, medikuntzaren eta ikerkuntza zientifikoaren aurrerapenei esker biziraupen handiagoa dutelako.

Aipatutako faktoreak eta horiekin batera "biztanleria lotua" delakoa osatzen duten etorkinen eta populazio ibiltaria, biztanleria hirietan biltzea eta landa eremuak hustea, nahikoa arrazoi ziren osasun eta gizarte zerbitzuak eta, oro har, administrazio publikoaren egiturak modu planifikatuan egokitu behar izateko, sen onean eta erantzukizun politikoan oinarriturik, hierarkiaren arabera kudeaketaren ordezkari kudeaketa horizontala ezar-

tzeko eta inbertsioak eta baliabideak gehitzeko, pixkanaka baina etenik gabe.

Osasun sisteman are beharrezkoagoa da aurrera egitea osasunaren zainketa premien erantzuna lehenbailehen egokitzeko, osasun laguntza herritarren funtsezko eskubidea eta biztanleen kezka nagusietako bat den aldetik. 90eko hamarkadan eta honen hasieran plangintza egituraturik erabili ez izanak presio handiagoa ekarri du osasun zerbitzuetan, bai oinarritzko osasun laguntzan bai espezializatuan.

Oinarritzko Osasun laguntza atariko da, herritarrengandik hurbilen dagoena eta gaixo gehien hartu behar duena izaki. Iruñeko eta Iruñerriko zenbait hirigunetan populazioa oso azkar handitu da, inoiz ez bezala, eta horrek presio handia eragiten du zenbait osasun etxetan, eta bertako langileak ezinean aritzen dira gero eta pertsona gehiago hartu behar izateagatik ez ezik oinarritzko osasun laguntzatik eman beharreko zerbitzuen kopurua ere handitu egin delako. Osasun etxeak, orain beste gai askotaz arduratzen dira: kirugiako ebakuntza txikiak, doppler bezalako frogak, zaharrek maiz erabiltzen dena, gaixo terminalentzako edo mugitu ezinik daudenentzako etxeko laguntza, edo ingurunearen aldaketak eta egungo populazioak daraman bizimodu presakoak ekarritako beste hainbat premia.

Horregatik guztiagatik, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuak honako hau aurkeztu du:

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du oinarritzko osasun laguntzaren antolaketa aztertu eta gaurkotu dezan sei hilabete gehieneko epean, herritarrei emandako zerbitzuaren kalitate galera gerta ez dadin, osasun arloko profesional asko pairatzen ari diren neurritz kanpoko lan zama arintzeko eta ematen diren botiken kopurua hain handia ez izateko, ikusirik osasun zerbitzuak Foru Komunitateko populazioaren premietara egokiturik ez egoteak osasun laguntzari dakarkion presioa.

Bereziki premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarritzko osasun laguntzako alderdi hauek aztertzeraz:

– Lan handiena dagoen osasun etxeetan eriak hartzeko ordutegia zabaltzea.

– Kontsultako gutxieneko denbora gehitzea, gaixo bakoitzeko 10 minutukoak izan daitezten.

– Sendagile bakoitzak egunean egin ditzakeen bisita medikoen kopuruak mugatzea, gehienez ere 25 heldu eta 15 haur izan daitezten, eta gehienezko kupoak, berriz, 1.200 eri helduen kasuan eta 700 haur pediatria bakoitzeko.

– Profesionalen egungo plantillak (familiako sendagileak, pediatriak, erizainak, gizarte eta administrazio zerbitzua) handitu eta sendotzea, lanpostu berriak sortuz, errefortzuak eta ordezkapenak barne, eta sistema mantsotzen duten lan burokratikoak aldatzea.

– Sendagaien erabilera arrazionalizatzea eta erantzun terapeutiko bera duten sendagai generiko alternatiboak erabiltzeko bitartekoak jartzea.

– Adimen osasuneko laguntza laguntza espezializatu gisa berrantolatzea, antolaketako zenbait alderdiren errebisioa barne: ordutegiak, larrialdiak, plantillen espezializazioa, gaixo kroniko eta larrirentzako lehentasunezko laguntza, zerbitzu eta prestazioen kartera, konponbidea emateko arazo honi –izan ere, azken 16 urteotan gaixoez jaso duten osasun laguntza ez baita nahikoa izan– eta horrek ingurunean eragiten duen presioari.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ordenagailuak erosteko dirulaguntzetarako deialdia onets dezan**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ordenagailuak erosteko dirulaguntzetarako deialdia onets dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan eta hurrengoaren babesean, mozio bat proposatzen du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, Nafarroako Gobernuak premiatzeko behar diren aurrekontu ekimenak egin ditzan Internetera konektaturiko ordenagailuak erosteko laguntzen deialdia egiteko 2002an.

Zioak

Sozialisten taldeak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren 2001eko aurrekontuei aurkeztutako zuzenketa bati esker, 150 milioiko (901.518,16 €) kontusaila sortu zen, Interneteko konexioa duten ordenagailuak erosteko dirulaguntzak emateko familiei. Sozialisten zuzenketa aho batez onetsi zuten talde parlamentarioek, baita UPNk ere, nahiz eta departamentuko arduradunek pentsatu ez zela beharrezkoa zuzenketa hura onestea.

“Etxe@: ordenagailua erosi eta nabigatzeko modurik onena” programa abiarazi zuen zuzenketa haren helburua zen “Nafarroa birtuala” garatzeko sozialista nafarrok proposatzen dugun politikaren atal bat gauzatzea, hain zuzen ere familia nafar guztiek baldintza beretan eduki ahal izatea eskura teknologia berriak zein informazio sareak, eta Interneteko erabiltzaileek sarriago nabigatzeko hartan.

Urtebete iraganik, talde sozialistaren ustez, kanpaina horrek beharrezkoa izaten jarraitzen du, eta hala erakusten dute kanpaina bukatuko zela azken unean jakin duten erosleek izan zuten jarrerak eta merkatarien adierazpenek, esanez merkatua beste kanpaina baten zain dagoela. Horrez gain, Nafarroako Foru Komunitateak azken



hileotan nafarrek erositako 7.700 ordenagailuetatik haratago jarri beharko luke jomuga.

Aldameneko erkidego bateko gobernuak, esate baterako, 73.000 ordenagailu erosteko diru laguntzak banatu ditu orain arte, eta asmoa dute 200.000 ordenagailutara heltzeko, horretarako hiru urtean 5.000 milioi jarrita. Horretarako, ordenagailuak erosteko zuzeneko laguntzak gehitu berri dituzte, 25.000 pezetatik 45.000 pezetara, hain zuzen.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak erabaki proposamen hau aurkeztu du Parlamentuko Osoko Bilkurak onets dezan:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru komunitatea-

ren esparruan ordenagailuak erosteko eta Interneteko konexioa eta erabilera sustatzeko dirulaguntzetarako 2002ko deialdia onets dezan, nafar herritarren eskabideei erantzuna emateko, 10.000 ordenagailuren gehieneko kopuruarekin.

- Kanpaina honetan dirulaguntzen zenbatekoa 270 eurotako izanen da deialdian ezarritako baldintza teknikoak betetzen dituzten ekipo informatikoen erosketa bakoitzeko; hitzarmenaren bidez kanpaina honi atxikitzen zaizkion finantza entitatek, berriz, 150 eurotako dirulaguntza emanen dute, gutxienez, ekipo informatikoen erosketa bakoitzeko, baldin eta erosketa hori entitate horren mailegu batekin finantzatzen bada.

Iruñean, 2002ko martxoaren 12an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du Unibertsitatei buruzko Legea haren borondatearen aurka inposatu izana**

### **BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du Unibertsitatei buruzko Legea haren borondatearen aurka inposatu izana".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadin.

Espainiako Gobernuak unibertsitate-esparruan aldatu duen legea, LOU izenekoa, aurrera atera

du. Lege horrek eragin nabaria izango du Nafarroako unibertsitate errealtatean, honako puntu hauek nabarmentzekoak direlarik:

- Nafarroan eskaintzen diren titulazioen gaineko fiskalizazioa handiagotuko da, Ebaluazio eta Akreditazio Agentziaren eskutik.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleria habilitazio sistema nazionalaren arabera hautatuak izango dira, Nafarroan ditugun beharrak ezertarako aintzat hartu gabe.

- Ikasleen ordezkari maila txikiagotuko da, eta katedradun zein doktoorena handiagotu.

- Zuzendaritza-guneen konposaketa eta funtzioak aldatuko dira.

Egiturazko aldaketa hauek guztiak Madrilen aurkezturiko, eztabaidaturiko eta aprobatutako lege baten arabera burutuko dira. Berrito ere, eta beste arlo askotan bezala, Nafarroak eta gainontzeko euskal herrialdeek ez dute zer esanik izan bere unibertsitate errealtatea antolatua eta arautzeko orduan.

Batasunaren ustez Nafarroako Parlamentuak ezin du Madrilen inposaketa berri hau onartu, eta beraz Unibertsitate Legearekiko pase forala aldarrikatu behar du. Honekin batera, Nafarroaren

beharretara egokitutako unibertsitate politika propioa garatzen hasi beharra dagoela deritzogu.

Beraz, Batasuna Parlamentuko Taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak bere borondatearen aurkako Unibertsitate Legearen inposaketa salatzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak lege horrekiko pase forala aldarrikatzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroak arlo honetan dituen beharrak aintzat hartuko dituen unibertsitate politika propioa garatzeko zein aipatu helbururako beharrezkoak diren neurri legislatiboak hartzeko borondatea adierazten du.

Iruñean, 2002ko martxoaren 13a

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## **Mozioa. Horren bidez, nazioko gobernua premiatzen da Senatuaren birmoldaketari bultzada eman diezaion**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, nazioko gobernua premiatzen da Senatuaren birmoldaketari bultzada eman diezaion".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, jabeldura baten ondorioz, Senatuaren erreformari eta autonomia erkidegoek Europako Batasunean izan beharreko partaidetzari buruzko mozio hau aurkeztu du, eta hurrengo Osoko Bilkurako gai zerrendan sar dadin eskatzen du.

Biltzarreko Osoko Bilkuran, joan zen 2002ko maiatzaren 14an, Senatuaren erreformari eta autonomia erkidegoek Europako Batasunean izan beharreko partaidetzari buruz eginiko eztabaida-

ren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du honakoa egitera:

1. Parlamentuko indar politikoen artean eta autonomia erkidegoen artean behar den elkarrizketa bultzatzea eta kontsensuaren bila aritzea Senatuaren erreformari ekiteko, proposamen horren baitan haren osaketaren eta eginkizunen erreforma ere hartuta, biltzar horrek autonomia erkidegoek eskatzen eta behar duten topagunea izateko bokazioa izaki, horretarako lurralde integrazio egokia emateko bidea izan dadin, ezinbestekoa baita hala egitea 1978ko Konstituzioaren eskutik sortu zen autonomien estatuarena bezalako egitura politiko konplexu batean.

Erreforma horrek, nolana ere, kontsensua bildu beharko du, eta Konstituzioaren III. tituluko osaketa, eginkizun eta Kongresuarekiko harremanei buruzko artikuluetara mugatuko da.

2. Lehendakarien konferentziaren inestutzionalizazioa sustatzea, gobernuko lehendakariaren eta autonomia erkidegoetako lehendakariaren arteko elkarrizketa bermatzeko.

3. Elkarrizketa eta akordioa bultzatzea indar politikoekin eta autonomia erkidegoekin, Estatuak Europako Batasunaren aurrean duten borondatea osatzeko gaur egun autonomia erkidegoek partaidetzarako dituzten tresnak aldatu eta sendotzea sustatzeko eta, bereziki, autonomia erkidegoen ordezkari batek, haiek izendaturik, Europako Batasuneko Ministroen Kontseilurako Espainiako ordezkariaren eta organo osagarrietan eta prestalantarako batzordeetan parte har dezan esparru prozedura bat lortzeko.

Prozedura horrek arautuko du autonomia erkidegoen ordezkari batek, haiek hautaturik, nola hartuko duen parte zuzenean Europako Batasuneko Ministroen Kontseiluan Espainiak duen ordezkartzan, eta bide emanen du Nafarroako Foru Komunitateak zuzenean parte har dezan Foru Komunitateko autogobernuari dagozkion gaiei buruzko eztabaidetan eta jokabidea erabakitzean, bereziki erkidego honen autonomia fiskalarekin zerikusia duten aferetan.

4. Senatuaren autonomia erkidegoen batzorde orokorraren ponentziaren lanak bultzatzea, lankidetzeta eta laguntzarako egungo tresnak hobetzea baitu helburu.

Ponentzia horrek behar diren aldaketak proposatuko ditu egungo arauetan, erakundeen arteko

harremanak, alde askotakoak nola alde bikoak, eraginkorragoak izan daitezten.

5. Senatuaren Osoko Bilkuran eta Batzorde Nagusian urtero egin beharreko autonomien estatuari buruzko eztabaidarako deia berehalakoan egitea, ez baita 1997az geroztik egin, ezinbestekoa delako talde politikoei eta autonomia erkidegoek estatu autonomikoaren egungo erronken aurrean duten iritziaren berri izateko.

Era berean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuaren aurrean mozio honen ondorioz onesten diren erabakien alde egin dezan.

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidearen erabilerari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidearen erabilerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta

hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Toki administrazioak lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzea partaide-tza publikoaren funtsezko tresna da, Konstituzioaren 47. artikulua biltzen dituen printzipioak kontuan hartzen dituen lurzoru eta etxebizitza politika baldin bada gogoan duguna.

Lehendabizikoa. Zenbat aldiz erabili du gobernuak eskubide hori azken lau urteotan?

Bigarrena. Zertan erabili da eta zer zenbatekotan?

Iruñean, 2002ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Jose M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena

---

## **Galdera, N-121-A errepidean gertaturiko istripu-kopuruari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak N-121-A errepidean gertaturiko istripu-kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak idatziz erantzun dezan.

N-121-A errepidearen egoera Biltzarreko zenbait talderen ekimenen xede izan da, alde hartako biztanleen jarduerak normaltasunez gauzatzeko arazo handiak eragiten dituelako, bai eta eskual-

deko garapen sozio-ekonomikorako oztopo larri eta behin betikoa ere.

Lehendabizikoa. Zenbat istripu gertatu dira azken urteotan N-121-A errepidean eta zein da horien balantzea?

Bigarrena. Zein dira departamentuak esku

artean dituen datuak errepide horretan ibiltzen diren ibilgailu kopuru eta motari buruz?

Iruñean, 2002ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Jose M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, Bardea eta Urbasako parke naturalen garapenerako asmoei buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Bardea eta Urbasako parke naturalen garapenerako asmoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

#### **GALDERAREN TESTUA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Lurraldearen Antolamendu,

Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Azken garaiotan natur parkeak eginkizun bikoitza duten tresnak bihurtu dira, batetik naturaren kontserbazioa eta bestetik kokaturik dauden inguruaren garapen sozio-ekonomikorako bultzada. Alabaina, zoritxarrez, ez dirudi hori gure erkidegoan erabiltzen den estrategia denik.

Lehendabizikoa. Zein da Bardeako eta Urbasako natur parkeetarako aurreikusi den aurrekontua, pentsaturiko jarduketara plana gauzatzeko?

Bigarrena. Zein jarduketaren finantzazioa aurreikusi du?

Hirugarrena. Zein dira aurtengo aurreikuspenak natur parke gehiago ezartzeko?

Iruñean, 2002ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Jose M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, farmazia-gastuaren aurreikuspenari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak farmazia-gastuaren aurreikuspenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz, honako galdera hauek egin dizkio Osasun kontseilariari, idatziz erantzun diezazkion.

Egun hauetan argitaratu da gure erkidegoaren farmazia gastua handitu izanari buruzko albistea, eta Nafarroa izan da Espainian 2002ko urtarrilean

gorakadarik handiena izan duen autonomia erkidegoa (9.275.807 euro), 2001eko aldi berarekin alderaturik (7.427.044 euro), hau da % 24,89 handiagoa.

Gure iritziz albiste txarra da Nafarroarentzat, eta egoera kezagarrian jartzen gaitu. Beraz, galdera hauek luzatzen dizkizugu:

1. Zein zen Osasun Departamentuak urte honetarako farmazia gastuetan egin zuen aurreikuspena?

2. Zein da gainerako hilabeteetarako aurreikusten den gastu bilakaera, 2002ko urtarrileko datuak kontuan harturik? 3. Zein dira Osasun Departamentuak hartu nahi dituen neurriak?

4. Osasun Departamentua bat al dator beste erkidego batzuen eskaerarekin, alegia, merkatuan sartzen diren sendagai berrien prezioa zehaztu eta finkatzen duen organo eskudunean parte hartzeko aukerarekin?

Iruñean, 2002ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legeak foru administrazioaren eraikinetan duen betetze-mailari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legeak foru administrazioaren eraikinetan duen betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legearen helburua da minusbaliotasun organiko edo bestelakoa duten pertsonen gizartearen ondasun eta zerbi-

tzuak eskuratu eta erabiltzea errazteko xedepena ezartzea.

1989ko ekainaren 29ko Foru Dekretuak aipatutako legearen garapena eta aplikazioa erregulatzeko duten arau teknikoak ezarri zituen.

Lehendabizikoa. Ba al du Nafarroako Gobernuak zerbitzuak ematen diren eraikin guztien egoeraren diagnostikoa eta 4/1988 legearen betetze maila?

Bigarrena. Zein jarduketa aurreikusi ditu 4/1988 Legeak agintzen duena eraikin horietan betetzeko?

Hirugarrena. Zein da jarduketa horietarako kalkulatzeko den kostua?

Laugarrena. Zein da jarduketarako aurreikusirik dagoen egutegia?

Iruñean, 2002ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Jose M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, energia berriztagarrietarako prestakuntzarako Zentro Nazionalaren obren egoerari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak energia berriztagarrietarako prestakuntzarako Zentro Nazionalaren obren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Lurraldearen Antolamendu,

Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Berriki aurkeztu da Foru Biltzarrean Nafarroako 2002-2004rako Enplegu Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko lege proiektu bat.

Proiektu horren memorian aipatzen da energia berriztagarrien arloko prestakuntzako zentro nazionalaren egoera, eraikitzen ari baita.

Lehendabizikoa. Nola daude energia berriztagarrien arloko prestakuntzako zentro horren lanak?

Bigarrena. Noizko aurreikusi da lanak amaitzea?

Hirugarrena. Zein izanen da zentro horren kudeaketa eredua?

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Jose M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, aurrekontuko “Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetako programak” kontusailaren betetzeari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurrekontuko “Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetako programak” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta

hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Berriki aurkeztu da Foru Biltzarrean Nafarroako 2002-2004rako Enplegu Plana finantzatzeko neurri osagarriari buruzko lege proiektu bat.

Proiektu horren memorian aipatzen dira laneko arriskuen prebentzioko delegatu sektorialentzako laguntza programaren finantzazio beharrak.

Lehendabizikoa. Zein izan da “laneko arriskuen prebentzioko delegatu sektorialentzako laguntza programa” kontusailaren aplikazioa 2001ean?

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Jose M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, Ezkaba mendian eginiko inbertsioei buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Ezkaba mendian eginiko inbertsioei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Parlamentuko Askotariko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hauei erantzuteko eskatu du:

Zioen azalpena

Alfontso XII.aren gotorlekua, Ezkaba mendian dagoen hori alegia, 1987an utzi zuen armadak eta 1991n zainketako azken taldeak kendu zituen. Orduz gero hutsik eta abandonaturik egon da, eta mendira joaten diren ibiltari anitzentzako arrisku bihurtu da.

Egoera horren aurrean eta Ezkaba mendiaren jabe diren herrietako udalek eta kontzejuek Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuarekin izaniko elkarrizketen eta bileren ondorioz, 1987ko urriaren 23an lankidetzaz hitzarmen bat izenpetu zuten Ingurumen Departamentuak, Anaitasuna Kultura, Kirol eta Josteta Elkarteak (mendi atala), Nafarroako Kutxak eta Berriozar, Antsoain, Berriobeiti, Ezkabarte eta Xulapaingo udalek, Ezkaba mendia jostetarako naturgune deklaratu, erabilera publikoa egokitu eta antolatu eta ingurumenaren arloko boluntarioen lanerako programa abiarazteko helburuekin.



Izenpeturiko akordioaren bigarren klausulak, besteak beste, honako betebeharrak ezarri zituen:

a) Ezkaba Mendiaren jabe diren udalen esku izanen da:

- Nafarroako Gobernuari proposatzea mendi hori jostetarako naturgune deklaratu dezan. Proposamen hori 1997. urtea amaitu baino lehen egin beharko da.

- Jostetarako naturgune deklaratzeko azterlanetan laguntzea.

b) Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuaren esku izanen da:

Ezkaba mendiaren hasierako garbiketa.

Ezkaba mendia egokitze eta erabilera publiko antolatze azterlan bat egitea.

- Ezkaba mendia jostetarako naturgune deklaratuzea.

- Erabilera eta kudeaketa plana onartu eta abiarazi bitarte egin diren lanak kontratatu eta gainbegiratuzea.

- Boluntarioen funtzionamendu eta prestakuntza gastuak finantzatu eta lanak egiteko behar diren materialak jartzea.

Jarduketak eta kudeaketak

Akordioak ukitutako udalek, aurreikusitako eguna baino lehen erabaki zuten alkateek izenpeturiko akordioa alderdi guztietan berrestea, bai eta Nafarroako Gobernuari Ezkaba mendia jostetarako naturgune deklaratzeko proposamen eskaera ere.

Ingurumen Departamentuak, 1998tik 1999ra ukitutako udalei aurkeztu zituzten Ezkaba mendirako jarduketako proiektu batzuk, departamentuak berak gauzatu zituenak.

1998ko urriaren 9an beste bilera bat egin zuten lankidetzaren hitzarmeneko sinatzaileek, akordioa beste urtebetez luzatzeko, ordurarte eginikoa onesteko, jostetarako naturgune bat sortzeko azterlan oinarrikoa jasotzeko eta Iruña eta Ata-

rabiako udalei gonbita egiteko batzordean parte har dezaten, udal ukituak diren aldetik.

2000ko urrian, Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuak gotorlekua zaintzeko eginko eraikuntzak eraisteko lanen enkargua eman zuten.

2000ko urri hartan bertan, Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuak Artikatik Ezkabako gotorlekura doan errepidearen hobekuntza selektiborako lanak adjudikatu zituen. Lanen funtsa zuloak betetzea eta zoladura eta ezpondak egokitzea izan zen.

2000ko urriaren 24an, beste bilera bat egin zuten Nafarroako Gobernuak eta lankidetzaren hitzarmena izenpetu zuten udalek; bertan, Ezkaba mendian jostetarako naturgunea sortzeko azterlan oinarrikoaren proiektua aurkeztu zen. Ordutik hona ez da inolako informaziorik eman Ezkaba mendian jostetarako naturgunea sortzeko egindako jarduketaren inguruan.

Azkenik, gogoratu beharra dago 1994tik hona, urtero, azaroan, Anaitasuna Kultura, Kirol eta Josteta Elkarteen mendi taldeak dei egiten ohi diela Iruñerriko biztanleei ibilaldi baterako, Iruñeko udal txetxetik hasita Ezkaba mendiaren tontorreraino, eta 2.500 pertsona inguruk parte hartzen ohi duela.

Horregatik guztiatik, honako galdera hauei erantzuteko eskatzen dugu:

1. Zein dira Nafarroako Gobernuak Ezkaba mendia hobetzeko gaur arte eta 2000 eta 2001ean egin dituen inbertsioak eta gastu orokorrak? 2002rako zein dituzte pentsaturik?

2. Nola dago Ezkaba mendian jostetarako naturgunea sortzeko azterlan oinarrikoaren proiektua? zein aurreikuspen dituzte Ingurumen Departamentuak hura onartzeko eta noizko?

3. Zein epetan eta modutan du aurreikusirik Nafarroako Gobernuak Alfontso XII.aren gotorlekuaren lur eta eraikinen titularitatea eskuratzea?

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## Galdera, Fustiñanako Hidronor zentroan hondakinak tratatzeari buruzkoa

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Fustiñanako Hidronor zentroan hondakinak tratatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

#### GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baz-

tán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak egin ditu, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

1. Zein izan dira Hidronorrek Fustiñanan duen plantan azken hiru urte hauetan trataturiko hondakinen tipologia, kopuruak, jatorria, tratamendu-sistema eta amaierako lekua?

2. Zein kontrol egiten ditu Ingurumen Departamentuak aipatu plantaren funtzionamendu egokiari buruz eta zein emaitza izan dira?

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## Galdera, Zolinako hiri bioklimatiko deritzonari buruzko administratio-erabakiei buruzkoa

### FORU PARLAMENTARI FÉLIX M<sup>a</sup> TABERNA MONZON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak Zolinako hiri bioklimatiko deritzonari buruzko administratio-erabakiei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

#### GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko Félix M.<sup>a</sup> Taberna

Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzuteko:

Joan den legegintzaldian, Etxebizitza kontseilariak zarata handiz Zolinako hiri bioklimatikoaren proiektua aurkeztu zuen. Denbora asko iragan da horretatik, eta ez dakigu zein den proiektu horren egoera.

– Zein administratio erabaki hartu zituen Nafarroako Gobernuak Zolinako hiri bioklimatikoaren ize-nekoaren espedienteari buruz?

– Zein egoeratan dago orain?

– Zein izan zen proiektua geldiarazteko arrazoiak?

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Félix M.<sup>a</sup> Taberna Monzón

---

**I saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

## 2002ko urtarrilean egindako bilerak

### MAHAIA ETA ELENDUNEN BATZARRA

28an.

---

## 2002ko urtarrilean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

### 2an:

– Elizagorriko Udaleko Osoko Bilkuraren erabakia, hondakin berezien tratamendu eta biltegitza-zerako zentroa Los Arcosen kokatzeari buruzkoa.

– Asociación de Enfermería Comunitaria elkar-  
tearen idazkia. Horrekin batera, erizaintza lanbide-  
ak gaur egun bizi duen egoerari buruz elkarte  
horrek eginiko txostena.

– Senatuaren idazkia. Horrekin batera, 2002ko  
otsailetik ekainera bitartean Biltzarreko Osoko Bil-  
kurak eginen dituen jardueren egutegia.

– ACS-ACR enpresen aldi baterako batasuna-  
ren idazkia. Horren bidez, Parlamentuko Mahaiak  
2001eko abenduaren 27an harturiko erabakian  
aipaturiko txostenak eskatu ditu.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin  
batera, zenbait aurrekontu-aldaketa baimentzen  
dituzten erabaki, foru agindu eta ebazpenen jak-  
inarazpenak, azaroan sarturikoak.

– Kontuen Ganbarako Lehendakariaren ebaz-  
pena. Horren bitartez 2002rako lan-egitaraua one-  
tsi da.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin  
batera, Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón foru parlamen-  
tariak eskaturiko informazioa, Nafarroako Gober-  
nuko kideek eta zuzendari nagusiek Espainiatik  
kanpo eginiko bidaiei buruzkoa.

– Behatokiaren idazkia. Horren bidez Nafa-  
rroako Parlamentuaren eraikin berriko errotulazioa

Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan egin dadila  
eskatu du.

### 3an:

– Nafarroako Kontseiluaren idazkia, gasolina-  
ren gaineko zerga berria Nafarroako zerga espa-  
rruan txertatzeko moduari eta Nafarroako lege-  
tan egin beharreko aldaketei buruzko irizpenerako  
eskaera jaso izanaren berri ematekoa.

– Sesmako Udaleko Osoko Bilkuraren eraba-  
kia, hondakin berezien tratamendu eta biltegitza-  
zerako zentroa Los Arcosen kokatzeari buruzkoa.

– Mendabiako Udaleko Osoko Bilkuraren eraba-  
kia, hondakin berezien tratamendu eta biltegitza-  
zerako zentroa Los Arcosen kokatzeari buruzkoa.

– Foru parlamentari José Andrés Burguete  
Torres jaunak aurkezturiko galdera, Tuterako  
“Reina Sofía” Ospitalean onkologiako eta espezia-  
litate berrietako zerbitzu bat sortzeari buruzkoa.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako  
Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkezturiko  
jabeldura, “San Francisco” ikastetxeak teresata-  
rren eraikin berrian egiaz hartu ahal izanen duen  
ikasle kopuruari buruzkoa.

### 4an:

– Gaztela-Mantxako IUren idazkia. Horrekin  
batera, Eskualdeko Koordinatzailearen dokumen-  
tu bat, autonomia-erkidego horretako hauteskun-  
de-legediaren egoerari buruzkoa.

**7an:**

– Erronkariko Batzarre Nagusiaren idazkia. Horren bidez, ipar-eskirako zentro baten proiektua eskatzen du.

– El Bustoko Udaleko Osoko Bilkuraren erabakia, hondakin berezien tratamendu eta biltegitza-zerako zentroa Los Arcosen kokatzeari buruzkoa.

– Castejónko Udaleko Osoko Bilkuraren erabakia, Madril-Medinaceli-Soria autobiari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Batasuna Parlamentuko Taldeak Ogasun publikoari buruzko Foru Legearen artikulua batzuen interpretazioari eta artikulua horiek Nafarroako aurrekontu orokorren zenbait alderditan duten eraginari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak eskaturiko informazioa, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Aurreneurrien Medikuntzako Zerbitzuak azken lau hilabeteotan egindako txosten eta azterlanei buruzkoa.

– Intsumisoei amnistia osoa ematearen aldeko adierazpen instituzionala egiteko proposamena, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkezturiko mozioa. Haren bidez, gobernu zentrala premiatzen da intsumisioa penalizatzen duten Zigor Kodearen zenbait artikulua kentzera.

**8an:**

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren aurka konstituzio kontraketatasun-errekurtsoa aurkezteko Parla-mentuak harturiko erabakia eskatzen du.

– Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkezturiko galdera, Urederra ibaian dauden arrain haztegiei irekitako espedientei buruzkoa.

– Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkezturiko galdera, administrazio publikoek nekazaritza eta abeltzaintzaren arloetan dituzten laborategiak arautzen dituzten Europako Batasuneko arauari buruzkoa.

– Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkezturiko galdera, Foru Komunitateko abeltzaintzako ustiatzearen egoerari buruzkoa.

– Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkezturiko galdera, soinu-zuko irrati hedapenerako emisoreen adjudikazioak jasotako enpresen akzio jabetzan gertatu diren aldaketei buruzkoa.

**9an:**

– Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri berri bat gehitzeko foru lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Drogamenpekotasunak kalteturiko Familien Elkartearen ordezkariak zenbait gairi buruzko informazioa emateko xedez lan-bilera bat egin dadila eskatzen du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Iruña-Logroño autobiak kalteturiko Lorkako herritarrak izeneko plataformak obra honen trazaduraren kontra egoteko arrazoiak azal ditzan lan-bilera bat egin dadila eskatzen du.

– Foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunaren idazkia. Horren bidez, Iruña-Lizarr-Logroño autobiak onura publikoko deklaratzeari buruzko informazioa eskatzen du.

– Foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak aurkezturiko galdera, ikastetxeen mantentze lanen, jardunaren eta zainketaren gastuak banatzeari buruzkoa.

– Foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak aurkezturiko galdera, Lehendakari-tza, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuan bitarteko izendapenen salbuespeneko prozedura erabiltzeari buruzkoa.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez eskatzen du heroína kontrolatuz emateko plan bat abiarazteari buruzko galdera ahozko galdera bihurtzea.

**10ean:**

– Uxua Arbizu Rezusta andrearen idazkia. Horren bidez eskatzen du abiaraz dadila Euskal Herrirako Unibertsitate Legea egiteko legegintzarako herri-ekimena.

– Foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak aurkezturiko galdera, Famili bitartekotzako Zerbitzua adjudikatzeko prozesuari buruzkoa.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkezturiko idazkia. Horren bidez, Iruña-Logroño autobiaren trazadura aldatzearen aldeko Lorkako bizilagunen Plataformako ordezkari batzuekin lan-bilera egin dadila eskatzen du.

– Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Los Arcosen industria hondakinen tratamendurako zentroa jartzearen kontra dagoela erabat.

#### 11n:

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, babes ofizialeko etxebizitzekin zerikusia daukaten zenbait gairi buruz aholku emateko txostena eskatzen du.

– Foru Lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea aldatzekoa.

– Idazkia, Carlos Cristóbal García foru parlamentariak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako 2001erako Aurrekontu Orokorren betetze-egoerari buruzko informazioa eskatzen du.

– Foru Lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentuko taldeak aurkeztua, Nafarroako aurrekontu orokorrek Hirugarren Munduko herrialdeekiko elkartasunerako erabili behar duten ehunekoa finkatzeari buruzkoa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuak aurkeztua. Horrekin batera, heroina modu kontrolatuan emateko plan bat abian jartzeari buruz foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak eginiko galderari emandako erantzuna.

– Foru Lege proposamena, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua, Garapenerako lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa.

– Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena (2000ko ekitaldia), Kontuen Ganbarak emana.

– Galdera, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak aurkeztua, Lizarrako saihebidetako bikoizteko aukera eta kostuari buruzkoa.

– Zuzendaritza Teknikoaren txostena, kontradikziozko 20. prezioari buruzkoa.

#### 14an:

– Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez,

Nafarroako Gobernuak premiatzen da telefonia mugikorrek estazioek igortzen duten erradiazio elektromagnetikoari buruzko azterlan bat egin dezan.

#### 15ean:

– Galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Los Arcosko hondakin berezien tratamendurako zentroaren proiektuan aurreikusiriko lanpostuei buruzkoa.

#### 16an:

– Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gorteek gasolinaren gaineko zerga igotzeko hartu den neurria arbuizatzen dute.

– Idazkia, ACS-ACR Enpresen Aldi Baterako Batasunak aurkeztua. Horrekin batera, Parlamentuaren egoitza berrirako obren 15. ziurtagiria, 2001eko azaro eta abendukoa.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Los Arcos, Elizagorri, Mendabia eta Sesmako Udaletako ordezkariekin lan-bilera bat egin dadila eskatzen du, Los Arcosen hondakin berezien tratamendu eta biltegitartzeko zentro bat kokatzeari buruz informatzeko.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Bera, Lesaka, Arantza, Igantzi eta Etxalarko alkateekin lan-bilera bat egin dadila eskatzen du, N-1eko Bera-Behobia zatia-aren gaur egungo egoerari buruz informatzeko.

– Mozioa, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako eta Gipuzkoako foru diputazioei exijitzen zaie N-121 errepideko Bera-Behobia bideuneri konponbidea emateko lankidetzaren hitzarmen bat egin dezaten.

– Idazkia, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak autoenplegurako laguntzak ezartzen dituen 259/92 Foru Dekretua berraztertzeraz premiatzen zuen mozioa, azaroaren 19an aurkeztua, erretiratzen da.

– Cascanteko Udalaren Osoko Bilkurak hartutako erabakia, Madril-Medinaceli-Tutera autobiari buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak aurkeztua, oinarritzako osasun laguntzako zentroetako laguntza podologikoari buruzkoa.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aur-

keztua. Horren bidez, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko langileen batzordeko ordezkariekin lan-bilera bat egin dadila eskatzen du, 1994ko Plan Zuzentzailearen betetze-mailari buruz informatzeko.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkezturiko idazkia. Horren bidez, heroina modu kontrolatuan emateko plan bat abian jartzeari buruzko galdera ahozko bihurtzeko eskaera erretiratzeko du.

– Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua, Foruzainek Sparta gimnasioa erabiltzeari buruzkoa.

#### **17an:**

– Galdera, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak aurkeztua, Nafarroako Gobernuak eremu mistoko ikastetxeetako ikasleek eta langileek euskara erabiltzeko duten eskubi-dea nola bermatuko duen jakiteko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako Gobernuaren eta Autopistas de Navarra, SAREN arteko lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, "Atento Comunicaciones" enpresak zergen inguruko telefono deiak hartzeko bete duen zerbitzuari buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

#### **18an:**

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Zangozako aztiendak ustiatzeki batean izandako tuberkulosi-agerpen infekziosoari dagokionez jarraitu den prozesuari buruzko informazioa eskatzen du.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, martxoaren 15ean osoko bilkura berezia egin dadila eskatzen du, LORAFNA onetsi zeneko XX. urteurrena ospatzeko.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Industria eta Lan kontseilariaren agerraldia eskatzen du, Nafarroako enplegu-egoerari buruz informatzeko.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Ingurumen kontseilariaren agerraldia eskatzen du, Nafarroan hondakinak kudeatu eta tratatzeari buruz Departamentuak duen politikari buruz informatzeko.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren eta "Vianako Printzea" Erakundeko zuzendari nagusiaren agerraldia eskatzen du, Iruñeko Gazteluko Plazan eginiko lanei eta izandako aurkikuntza arkeologikoei buruz informatzeko.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez eskatzen du Hezkuntza eta Kultura batzordeak bisita bat egin dezala Gazteluko Plazara.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, 0-3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxeak abian jarri dituzten herriei buruzkoa.

– Foru Lege proposamena, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa.

– Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua, erregistroko 66. zenbakia duen agerraldi-eskaeran antzemandako okerrak zuzentzeko.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua, erregistroko 67. zenbakia duen mozioan antzemandako okerrak zuzentzeko.

– Dokumentazioa, Reinischek aurkeztua, itzulpen-sistema lagundu bat ezartzeko aholku-emate teknikoko zerbitzu bat kontratatatzeko lehiaketarako.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, Hezkuntza kontseilariaren agerraldia eskatzen du, Nafarroan Lanbide Heziketa garatzeko Planari buruz informatzeko.

– Idazkia, Sociedad de Estudios Históricos de Navarra elkartearena. Horren bidez, Kongresua eginen dutela jakinarazten du, eta laguntza eskatzen du.

– Dokumentazioa, Xarelanek aurkeztua, itzulpen-sistema lagundu bat ezartzeko aholku-emate teknikoko zerbitzu bat kontratatatzeko lehiaketarako.

#### **21ean:**

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, informazioa eskatzen du 1999an Osasunbidearen eta San Juan de Dios

Ospitalearen artean indarrean zegoen hitzarmenari buruz.

– Galdera, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua, “Navarra de Medio Ambiente, S.A.” (NAMAINSA) enpresak sustaturiko hondakin berezietarako zentroei buruzkoa.

– Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Kultura Zuzendaritza Nagusia premiatzen da Gazteluko Plazako hondakin arkeologikoak desmuntatzeko agindua bertan behera utz dezan.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Viának Printzea Erakundeko zuzendariaren agerraldia eskatzen du, Gazteluko Plazako hondakin arkeologikoei buruz informatzeko.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Fustiñanan industri hondakinen tratamendurako zentro bat instalatzeko proiektuko ingurumenaren gaineko eraginaren azterketari buruzko informazioa eskatzen du.

– Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua, Fustiñanan industria hondakinen tratamendurako planta bat jartzeko prozesuan betetako tramiteei buruzkoa.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Ingurumen kontseilariaren agerraldia eskatzen du, industri hondakinen tratamendurako bi zentro instalatzeko baimenen egoera azaltzeko.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuak aurkeztua. Horrekin batera, 2001-2003 eperako Toki Azpiegituren Hiru Urteko Planaren garapenari eta betetze-egoerari buruzko urteko balantzea.

#### **22an:**

– Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak aurkeztua, Lizarrako “García Orcoyen” Ospitaleko ZBU mugikorraren zerbitzua-  
ren egoerari buruzkoa.

– Idazkia, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak aurkeztua. Horren bidez, Antsoaingo udalaren agerraldia eskatzen du, osasun-arloan biztanleek dituzten gabeziei eta osasun-etxe bat eraiki beharri buruz informatzeko.

– Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak aurkeztua, Lizarra-Azagra aldeko osasun garraio programatuaren zerbitzua emateari buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak aurkeztua, Nafarroako Ospitale-

ko tanatorioaren lokalak aldi baterako okupatzeari buruzkoa.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Antsoaingo udalerrria hartuko duen oinarritzko osasun eskualde berri bat era dezan.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu onkologikoak eman ditzan Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan.

– Idazkia, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak aurkeztua. Horren bidez, Amagintza elkarteko ordezkariekin lan-bilera egin dadila eskatzen du. Aipaturiko elkartearen xedea haurrek amaren esnea hartzeari eta amatasunari laguntzea da.

– Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak aurkeztua, ginekologiako azterketetarako zitazioen zain daudenen zerrendari buruzkoa.

– Idazkia, Nafarroako Unibertsitate Publikoak aurkeztua. Horrekin batera, herri behartsuetako unibertsitate-ikasleentzako bekak emateko proposamena, Lankidetzak Hitzarmenak jasotakoa.

– Kontuen Ganbarak emandako txostena, 2001eko maiatzetik irailera bitartean foru aginduen eta Parlamentuari igorritako ebazpenen bitartez eginiko zenbait aurrekontu-aldaketaren legezkotasunari buruzkoa.

#### **23an:**

– Galdera, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak aurkeztua, abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Aginduan sartutako diru laguntzak jasotzen dituzten minusbaliatuei buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua, Nafarroako Gobernuak laugarren mapa soziolinguistikoan parte ez hartzeari buruzkoa.

– Idazkia, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak aurkeztua. Horren bidez, Foru Komunitatean ingeles, frantses eta alemanari buruz eginiko inkesta soziolinguistikoaren gaineko informazioa eskatzen du.

– Foru Lege proposamena, Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sektorea sustatzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko taldeak aurkeztu dute.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Argentinan bizi diren nafarren aldeko neurriak har ditzan. Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Zuzenketak, Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektuari foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkezturikoak.

#### **24an:**

– Foru Lege proposamena, Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Foru Lege proposamena, erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntzari buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Foru Lege proposamena, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboñés Bermejo andreak aurkeztua, bikote egonkorek egindako PFEZ aitopenei buruzkoa.

– Foru Lege proposamena, 2002tik 2006ra bitarteko urteetarako etxebizitzaren arloko presako jarduketari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Dokumentazioa, Mercedes Seviné Ruiz andreak aurkeztua, transkriptore-postuaren jabetza hartzeko.

– Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen. Nafarroako Gobernuak igorri du.

– Foru Lege proiektua, Etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituen. Nafarroako Gobernuak igorri du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuak aurkeztua. Horrekin batera, Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta Bakearen Mezulariak izeneko elkartearen artean izenpeturiko itunei buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eskaturiko informazioa.

– Idazkia, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua. Horren bidez, Herrilan kontseilariaren agerraldia eskatzen du, N-121 A errepidearen Endarlatsatik Behobiarako zatia konpontzeko xedez Gipuzkoako Aldundiarekin izandako azken harremanei buruz informatzeko.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Gobernuaren ordezkariaren agerraldia eskatzen du, Nafarroan etorkinak arauzkotzeko prozesuaren xehetasunei buruz informa dezan.

– Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua, Tuterako “Reina Sofia” Ospitalean onkologia zerbitzua ezartzeari buruzkoa.

#### **25ean:**

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Amagintza elkarteko ordezkari batzuekin lan-bilera bat egin dadila eskatu du. Elkarre horren xedea haurrek amaren esnea har dezaten sustatzea da.

– Adierazpen politikoa egiteko proposamena, euskal gatazkari irtenbide politikoa bilatzeko elkarriketa bultzatzearen aldekoa. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Zuzenketak, Nafarroako Foru Komunitatean irati-komunikazioko instalazioak antolatzeke Foru Lege proposamenari Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– Idazkia, Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak aurkeztua, atzerritarren arauzkotzeari buruzkoa.

– Idazkia, Uxua Arbizu Rezusta andreak aurkeztua. Horren bidez, Euskal Herrirako Unibertsitate Lege proposamena sortu eta abiarazteko xedez herriaren legegintza-ekimena erabiltzeko eskatzen du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuak aurkeztua. Horrekin batera, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak eskaturiko informazioa, Audenasarekin 1999ko maiatzetik sinaturiko hitzarmenei buruzkoa.



– Marokon espetxeratutako Saharako herritarak aske uztearen aldeko adierazpen politikoa egiteko proposamena. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroan etorkinekin lan egiten duten elkarten ordezkaritza batek agerraldia egiteko eskatzen du, arauzkotze-prozesuaren berri izateko.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentrorako proiektua udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeari buruz Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak ekainaren 15ean emandako txostenari buruzko informazioa eskatzen du.

– Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua, industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentroaren proiektua udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeari buruzkoa.

#### **28an:**

– Idazkia, Ermitaberri ikastetxe publikoak aurkeztua. Horren bidez, Hezkuntza Batzordea ikastetxera bisita egin dezan eta errealitatean daukan espazioak zein diren egiazta dezan gonbidatzen du.

– Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua, N-121-A errepideko bideune bakoitzaren obren egoerari buruzkoa.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Socialistas del Parlamento de Navarra eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeek aurkeztua, Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sektorea sustatzeko Foru Lege proposamenean (joan den egunean aurkeztua) antzemandako okerra zuzentzekoa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuak aurkeztua. Horrekin batera, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboñés Bermejo andreak Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria eta Neonatologia Zerbitzuaren egoerari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuak aurkeztua. Horrekin batera, N-232 errepidearen bikoizketak izanzen duen trazadurari buruz foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Galdera, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboñés Bermejo andreak aurkeztua, Benjamín de Tudela Bigarren Hezkuntzako Institutuan Lanbide Heziketa kentzeari buruzkoa.

– Zuzenketak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/01 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– Idazkia, Alternativas Energéticas Solares delakoak aurkeztua. Horren bidez, zenbait gairi buruz informatzeko bilera bat egitea eskatzen du.

– Berraztertze-errekurtsoa, Mahaiak 2001eko abenduaren 27an harturiko erabakiaren aurka ACS-ACR Enpresen Aldi baterako Batasunak aurkeztua.

– Zuzenketak, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkezturikoak.

– Zuzenketak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/96 Foru Legeko zenbait manu aldatzeko Foru Lege proiektuari Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkezturikoak.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Foru Komunitatean ingeles, frantses eta alemanari buruz eginiko inkesta soziolinguistikokoaren gaineko informazioa eskatzen du.

– Zuzenketak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroako Foru Komunitatean jartzeari buruzko Foru Lege proposamenari foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztuak.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, hiru mozio erretiratu ditu: Nafarroako Gobernu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Ondareari buruzko Foru Legearen aldaketa proposa dezan, nafar ezgaituak eta araubide komunekoak parekatzearren, premia-tzen duena; Nafarroako Parlamentua Tuteran unibertsitate mailako ikasketak jartzearen alde azaltzekoa; eta Internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza kanpaina 2001ean zehar luza dadin beharrezkoak diren aurrekontu-ekimenak har ditzan Nafarroako Gobernuak premia-tzen duena.

**29an:**

– Foru Lege proposamena, 2002tik 2004rako Nafarroako Enplegu Plana betetzen dela bermatzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Foru Lege proposamena, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– San Francisco ikastetxe publikoko Eskola Kontseiluaren erabakia, ikastetxearen egoitza etorkizunean teresatarren eraikinean kokatzeari buruzkoa.

– Foru Lege proposamena, zaharrak hartzeari buruzkoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Burlatako Ermitaberrri ikastetxera bisita egiteko baimena eman dadila eskatzen du, errealitatean dauzkan espazioak zein diren egiaztatzeko.

– Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentro bat Fustiñanan instalatzeko prozedurak gera ditzan.

**30ean:**

– Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez,

Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioiko eraikinek errotulu elebidunak izatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak abiaraz ditzan.

**31n:**

– Galdera, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua, ibilgailu baten jabetzari eta narkotrafiko operazio batekin izan lezakeen loturari buruzkoa.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Iruñeko Gazteluko Plazako aparkalekua eraikitzean hondakin arkeologikoak agertzearen espedienteari buruzko informazioa eskatzen du.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, zenbait opor-sasoitan jai hartu zuten osasun-arloko langileei buruzko informazioa eskatzen du.

– Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua, oporraldietan osasun-arloko langileak ordeztzeko politikari buruzkoa.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Arguedasko parke tematikoaren proiektuari buruzko informazioa eskatzen du.

– Idazkia, foru parlamentari José Luis Úriz Iglesias jaunak aurkeztua. Horrekin batera, bere enpresaren beste eskaera bat, dietei buruzkoa, horiek deskontatzeko.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 39,07 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--